


Bernie SANDERS Donald Trumpek AEBetako hauteskundeak irabazi dituen urtea

«Demokrata askok ez bezala, Trumpek egoeraren larritasuna ondo ulertu eta esplotatzen jakin du»



Argazkiak: Peter HAPAK

Jason ZENGERLE («GQ» aldizkaria)

AEBetako presidentetzara iristeko bere apustuak Hillary Clinton egoera larriari ipini eta boto-emai-le belaunaldi berri bat esnarazi zuen. Baina ba al du Bernie Sandersek hautagai demokrata bihurtzeko izan zuen aukera hura mugimendu sendo bilakatzeko gaitasunik?

Esperantza eta aldaketa baino etsipena protagonista izan zuen kanpainan, zorionez, emozio eta inspirazio dosiak eskaini zituen hautagai bat izan zen: Bernie Sanders. Donald Trumpen aurkaria izan baltz, ez dago ziurtasunez esaterik irabazle izango zen edo ez. Edozein kasutan, Sandersek asmatu zuen hainbeste estatubatuarrek sentitzen zuten haserre eta ezinonarekin konektatzen, eta, presidente berriak ez bezala, herrialdea zatitu baino, egoerari batuta aurre egiteko soluzioak proposatu zituen.

Prozesu horretan, bere burua sozializatatzat jotzen duen Sanders etsitutako langile eta gazte askoren heroi bilakatu

zen. Trumpen garaipenaren ondoren, Alderdi Demokrata depresibo eta ahul baten geroa marrazteko ahots saihetsezina bihurtu da.

Horren guztiaren inguruan hitz egin zuen berarekin «GQ» aldizkariko Jason Zengerle kazetariak. Sandersekin egin zituen bi elkarrizketen –bata hauteskudenen aurretik eta bestea ondoren– transkripzio laburtua bildu dugu jarraian.

Demokraten primarioetan zuri botoa eman zizuten askok Trumpen alde egin dute gerora. Gela batean sartu eta aurrez aurre beraiekin hitz egiterik bazenu, zer esango zenieke?

Obamaren agintaldiaren ostean duela zortzi urte baino hobeto egon arren, uste dut Trumpek ondo ulertu eta esplotatu duela, demokrata askok ez bezala, milioika langile familia egoera oso larriari dandela. Trumpek bere burua langile familien defendatzaile gisa aurkeztu zuen, *establishment*-ari aurre egingo zion norbait bezala. Ezin sinetsizkoa da hori egingo duenik. Tipo honek irabazien gaineko zergarik ez du ordaintzen, bere konpainien lanpostuak Bangladesh, Txina, Me-

xiko edo Turkiara eramaten ditu, eta, sarritan, langileek auzitara eraman dute euren lan kontratuak ez errespetatzeagatik. Eta hala ere, langile jende pila-pila batek bere alde egin du.

Jende horrekin gela batean banintz zera esango nieke: ez sinistu tipo horrek esaten duenik! Egin dituen promesak beteko dituen inolako bermerik ez dago. Laster hasiko gara hori ikusten.

Badira Harry Reid bezalako ordezkari demokratik Trumpekin inolako elkarlanik izatea akats larria litzatekeela diotenak. Zergatik da ikuspegi hori okerra?

Argi hitz egin dezagun: intolerantzia eta fanatismoan, izan arrazismoan, sexismoan, homofobian edo xenofobian oinarritutako programa eta politiketan diharduen presidente batekin ez dago ezer adosterik. Ezta planeta osoarentzat mehatxu bat den aldaketa klimatikoaren negazionistekin ere.

Baina Trump gure herrialdearen azpiegiturak berreraiki eta milioika lanpostu sortzen, soldata minimoa igotzen, gure kanpo komertzioaren arauak aldatzen lan egiteko prest bada, orduan bai, or-

duan prest gaude elkarlanari bai esateko. Etxekalte litzateke langile klaseak behar dituen politiketan, gure interes partidistengatik, aurrera egingo ez bagenu.

Trumpen garaipenak Alderdi Demokratik zuk defendatzen dituzun posizio arrerakoietara eramateko lagungarria izan al daiteke? Esperantzarako tartea uzten al du aukera horrek?

Ez, ez nuke esango Trumpen garaipenak esperantzari ateak irekitzen dizkionik. Beldurra ematen du eta uste dut herrialde honetan jende pilo dagoela datozen urteetan gerta daitekeenaren inguruan oso ikaraturik. Beraz, ez dut ikusten esperantzarako zirrikiturik.

Baina Alderdi Demokrata goitik behera eraldatzeko lanean ari gara. Orduko soldata minimoa 15 dolarrera igotzeko legeria bultzatzen ari gara. Trumpek dio kezkatuta dagoela langileen familien egoerarekin. Hala bada, babes agertuko diogu; legeri zehatza izango du hori frogatzeko. Nik gizon eta emakumeen soldatak parekatzearen aldeko legeri oso zehatza bultzatuko dut. Ikuskizun dago Trumpek babestuko duen ala ez. Azpiegiturretan ere oso proposamen legegile zehatzak izango dira. Espero dut Trumpek haien alde egitea. Bere kanpaina osoa oinarritu zuen komertziorako politikak bergauzatzearen inguruan. Beraz, kontua ez da guk Trumpekin batera lan egitea, Trump gurekin batera jardutea baizik.

Hauteskudenei dagokionez, demografia demokraten alde zegoela uste zen, eta, emaitza, dudatan zudenak konbentzitzean baino, Clintonek hainbat sektore motibatu eta hautetsontzietara eramateko izango zuen gaitasunean. Ikuspegi hori zuzena zela uste duzu?

Ni ez naiz demografiaren fan handia. Afroamerikarrek edo latinoek errepublikanoen kontra botatuko zutela uste zen, arrazismoaren eta xenofobiaren kontra egingo zutela. Edo sexista zelako, emakumeek ez zutela Trumpen alde egingo. Egiaren parte bat egon daiteke hor, baina ez egia osoa. Edozein kasutan, baina, ezin dezakezu kanpaina bat egin –eta gutxiago alderdi bat zuzendu– zure jarraitzaileek “a”, “b” edo “c” arrazoiengatik (arrazis-



moa, sexismoa edo homofobia) errepublikarren kontra bozkatuko duten segurtasuna izanik. Zerbaiten alde egin behar duzu! Ez da nahikoa esatea «beno, ni ez naiz arrazista, ni ez naiz sexista, ni ez naiz xenofobia, beraz, emadazue botoa niri». Hori baino askoz gehiago behar da. Inoren kontra botatzearekin ez da aski, norbaiten alde ere egin behar da. Eta horren arabera gure mezuari forma eman behar zitzaion. Eta ez genuen lortu.

2020. urtean zure hautagaitza berriz aurkeztuko al duzu?

Nazio bezala benetan ditugun arazoez jardutea da nire asmoa. Jendea ez da kezkatzen 2020an nor aurkeztuko den inguruan. Aukeratu berri den presidentearen mandatua hasi ere egin ez denean, oso azkar da horretaz aritzeko.

Komunikabideen inguruan kexu azaldu zara sarri, benetan axola duten istorioak lantzeko erakusten duten interes faltagatik. Berri faltsuen ugalketa izugarria ere ezagutu dugu. Zenbateraino kezkatzen zaitu arazo horrek?

Oso arazo serioa da milioika lagunek osoki faltsuak diren gezurrak irakurtzea. Bestalde, hainbat azterketak erakutsi dute aldaketa klimatikoari, klase ertainen gainbeherari, osasungintzari, langabeziari, pobrezari eta gisako gaiei telebistetako albistegietan egiten zaien jarraipena oso txikia dela ika-mika politikoekin, txutxu-mutxuekin edota 2020an, 2090an edo 2400an zein hautagai izango diren bezalako konjeturekin alderatuta. Kanpainak ezin dira soilik hautagaien ingurukoak izan; jendearen beharren ingurukoak izan behar dira.


Hautagai bezala metatu duzun esperientzia ikusita, zer lortu du Bernie Sandersen Etxe Zurira iristeko kanpainan?

Aukeren terminoetan hitz eginez, kontzientzia zabaldu dugula uste dut. Zehazki, galdera bat jarri genuen mahai gainean kanpainan zehar: «Zergatik mantendu behar dugu soldata eta ongizate mailan daukagun ezberdintasun grotesko hau? Zergatik? Zergatik ari gara ahalbidetzen gure nazioa oligarkia bilakatzeko deriba, aberats gutxi batzuek hauteskundeak erosi ahal izateraino?».

Zergatik uste duzu 40 urtez azpiko boto-emileen artean horrelako arrakasta lortu zenuela?

Begira, zera esan behar dizut: kanpainan zehar milioi eta erdi pertsona ingururekin hitz egin genuen zuzenean. Eta segur aski sekula jaso dudana laudoriorik onena

«Gure nazioa oligarkia bilakatzeko deriban sartuta dago, aberats gutxi batzuek hauteskundeak erosi ahal izateraino»



gerturatu zitzaidan mutil gazte batek bota zidan: «Badakizu Bernie? Zutaz gehien gustatzen zaidana pertsona inteligente bezala tratatzen gaituzula da». Zera esan nahi dut horrekin: eman nituen hitzaldi guztien artean, bakarra ere ez zen izan 45 minutu baino gutxiagokoa, eta, gehiengehienak, ordu batetik gorakoak izan ziren. Eta jendeak hitzaldiak adi-adi jarraitzen zituen. Hori ez zen gertatu oratoriarako ditudan ahalmenengatik, nire ustez, gure herrialdean gertatzen ari dena ulertzeko dagoen gogo izugarriagatik eman zen. Komunikabideek ez dute gauzak behar bezala ulertzea errazten. Politikari gehienek ere ez. Amerikarren intelgentzia eta gertatzen ari denaz ikasteko beren desira gutxietsi egiten direla uste dut.

Bestalde, Trumpen mitinetan ere jendetza batu zen, zure mitinetan bezainbeste. Trumpen aldeko txalo zaparradak ere oso nabarmenak izan ziren. Trum-

pek, aldiz, zuk egindako bidearen kontrakoa hartu zuen. Edukiei ez zien jaramonik egin, boto-emileen pasio baxuenak xaxatu zituen. Nola ulertzen duzu bion mitinetan ikusi genituen jendetzen fenomenoak?

Ezinegon nabarmen bat dago gizartean, hori azpimarratu egin behar da. Azterketa objektibo batek gaur egun ekonomia duela zortzi urte baino hobeto dagoela azalduko dizu, eta, beraz, Obamak eta Bidenek horren aitortzea merezi dutela. Baina arazo erreal larriak ere badaude. Eta gertatzen ari diren kontu kezkarri askoren artean bat aipatzeko, langile klase zurien artean oraintxe bertan ematen ari den bizi itxaropenaren gutxitzea aipa dezakegu. Hori gertaera erabat ahistorikoa da. Gainerako mundu osoan, bizi itxaropena gora doa. Desesperantza handia dago gure nazioan –ekonomiagatik, baina ez bakarrik horregatik– eta jendea drogetara jotzen ari da, alkoholera, suizidioak goraka doaz...

Katrina vanden Heuvel 1865. urtean sortutako "The Nation" AEBetako astekari zaharrenaren zuzendari eta editorea da. Berriki bere astekariaren azalean "Trump fenomenoari" begirada zorrotza eskaini zioten. Gora begira agertzen zen presidente berriaren marrazkiaren ondoan, "egolatra", "misoginoa", "horma" eta "arrazista" gisako hitzak agertzen ziren hizki laranjaz. Ondorengo lerroetan Trumpen garaipena aztertzen du Katrina vanden Heuvelek, komunikabideek jokaturako paperaren inguruko hausnarketa plazaratuz. Trumpek boterea nola lortu duen pentsatzeak sutu egiten du, bere figuraren eraikuntzan komunikabideek izandako garrantziak eta aurrerantzean gertatu daitekeenaren inguruan pentsatzeak sutzen duten bezala.

"The Nation"-ek New Yorken duen bulego berri eta distiratsutik ia kutsu akademiko hitz egiten du, fenomeno bezala hautagai errepublikanoak suposatu duenarekin nolabaiteko liluraz. Vanden Heuvelen esanetan, «komunikabideen eta berrien arteko lerroa, erabat ez bada, pixkanaka difuminatu duen aro mediatiko honen kreatura bat da Trump. Telebistako *reality*-en kreatura». "The Apprentice" serieak «izen familiarra» eman zion Trumpi, baina berri sentsazionalista eta bitxien kreatura ere bada nolabait. «Bizitzen ari garen uneko produktua da Trump, hitz egiten ari garen une honetakoa, *reality show*-ak oinarri dituen telebistak sortutakoa, baina politikoki ere bide beretik hil daiteke. Azken finean, sortu duen horrek amaitu dezake berarekin».


Vanden Heuvel 1995. urtetik da "The Nation"-eko zuzendaria. Ezker politikoan, Errusian eta nazioarteko harremanetan esperientzia handia duen politikaren junkiea da. Bill Clintonen agintaldian Etxe Zurian berriemaile berezi izan zen eta ez du zalantzarik Trump boterera eraman duen mugimenduan «zirkulu mediatikoak» izan duen papera aitortzeko. Vanden Heuvelen aburuz, «komunikabideen praktikak okerrak izan dira», eta Trump hautagai bihurtu baino askoz lehenagotik «dirua eta *rating*-ak lortzeko» bere ekitaldiak nola jarraitu zituzten gogoratu du..

Gaur egungo kultura hutsalak Trumpen igoera asko lagundu zuela dio, baina aitortzen du herrialdearen «haserreak» ongi identifikatu eta esplotatzen jakin duela.

«Nolabaiteko piztia da, alderdi

KATRINA VANDEN HEUVEL

«Trump telebistako 'reality'-en kreatura da, sortu duen horrek hil dezake baina»



GAUR8

errepublikanoak berak sortutako munstroa. Baina alderdia hil egingo du. Alderdiaren berezko kulturatik atera egiten da eta konspirazioaren eta negazionismoaren kultura besarkatzen du». Ildo horretan, Obamaren «amerikartasuna» zalantzan nola jarri zuen gogoratu du, presidentea bere jaiotze agiria erakusteraino eraman zuen kanpaina basatia gogoan –*birtherism* izena eman zaio fenomenoari–.

Baina guztia ez da negatiboa. «Esateko inportanteak diren kontuak ere esaten ditu. Ohio edo Michiganera doanean, lanpostu galera izugarria eta desindustrializazioa eragin dituzten itun komertzialen aurka aritzeko gai da. Alderdi Errepublikanoak ez du halakorik sekula egin. Bi alderdien *establishment*-aren aurka jo du auzi honetan duten arduragatik, bere alderdikoaren aurka bereziki. Langile klasea hamarkadetarako zaurituta utzi dutela argi eta garbi esan du».

Emakumeen gainean Trumpek esandakoak ez ditu ahazteko Vanden Heuvelek. «Tipo hau harrapari bat da», dio. «Aldageletako komentarioak direla? Bai zera!».

Trumpen misoginia eta gonazaletasuna azalarazten sare sozialek eta teknologiak jokaturako papera ere aztertu du, bere buruari galdetuz ea John F. Kennedy eta Bill Clinton bezalako hautagaiak presidente izatera iritsiko lirakeen euren garaian teknologia horiek existitu izan balira. Erantzuna airean utzi du, kontu horren inguruan hausnartzen denbora gehiegi galdu gabe. Aldiz, egun komunikabideek zer gairen inguruan hitz egiten duten eta norantz doazen aztertzea garrantzitsutzat du. «Komunikabide asko zatitzen gaituenaz elikatzen dira». Kanpainen hori oso nabarmena izan da berarentzat, lokatza eta sentsazionalismoa nagusi izan baitira bere ustez. «Gure astekarian edukiak dibertsifikatzen saiatu gara, kanpainaz gain, ekonomia, nazioarteko politika edo justizia kriminalaz aritzeari ez baitiogu uko egin».

Azkenik, komunikabideen industrian tradizioak eta markak duten garrantzia nabarmendu nahi izan du. «Argi dago egun ezinbestekoa dela formatu digitala izatea, baina ezin zaitezke soilik digital izan. Tradizioa errespetatu egin behar duzu. Hori da bederen 'The Nation'-en egiten duguna».